

MUSIKA/MÚSICA

Pablo Cortezón Tellechea

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena/ *Propuesta de un concierto didáctico para trabajar la multiculturalidad.*

TFG/GBL 2013



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación
Primaria /
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen
Gradua***

**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**Multikulturaltasuna musika eta
dantzekin lantzeko kontzertu
didaktikoaren proposamena/*Propuesta
de un concierto didáctico para trabajar
la multiculturalidad.***

Pablo Cortezón Tellechea

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

Ikaslea / Estudiante

Pablo Cortezón Tellechea

Izenburua / Título

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena/ *Propuesta de un concierto didáctico para trabajar la multiculturalidad.*

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria/ Director-a

Auritz Aurtenetxe Zalbidea

Saila / Departamento

Psikologia eta pedagogia

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarri, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu, ikasketetan jasotako euskera, gaztelania eta ingeleseko ikasketen bidez, lanak eskatzen duen komunikazio maila lortzera. Gainera, IKT inguruan ikasitakoarekin, lanaren inguruko informazio bilaketa bermatu du, arlo digitaleko baliabideak bilatzen.

Didaktika eta diziplinako moduluak, bidea eman digu, batez ere musikaren didaktikaren ikasgaiaren bidez, honen inguruko proposamen didaktikoaren ariketak, metodologia eta ebaluazioaren planteamendua egokiak planteatzeko.

Halaber, *Practicum* moduluak bidea eman digu praktiketan zehar adin eta ezaugarri desberdinekin lortutako esperientzia aunitzei esker oraingo proposamen honetan planteatu diren ariketak praktikara eramateko momentuan erabilgarriak diren edo ez zehazteko, hauen balioa kritikotasunez hartuz eta lana aurrera joan ahala hobekuntza desberdinak planteatuz.

Azkenik, aukerako moduluak, kasu honetan heziketa fisikoaren esparruak, bidea eman digu kontzertu didaktikoa dantzekin erlazionatzeko eta dantza hauekin landuko diren ariketak planteatzeko, aukerako moduluan zehar landutako baliabide ezberdinei esker, ikasleen garapen motoreak ezagutu ditugu eta hauenganako egokitzapenak bilatzea baliatu du.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira "Conclusiones y cuestiones abiertas" eta "Resultados" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Proposamen honetan zehar Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ikuskizun didaktiko baten sorkuntza sustatzen da. Modu honetan, kontzertu didaktikoak diren tresna erabilgarri bat aurkezten zaie hezkuntza arloko profesionali. Proposamen honetan zehar, gaur egungo gizartean hain indarrean dagoen multikulturaltasunaren gai lantzeko bide bat aurkezten da. Horretarako, kultura desberdineko dantza eta musikarekin erlazionatutako jarduerak proposatzen dira, hauekin, kultura desberdinenganako errespetua eta tolerantzia bermatu nahiaz. Honen bidez, kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko hain beharrezkoak diren metodologia berritzaileak bultzatzearen. Eta kontzertu didaktiko bat aurrera eramateko hezkuntza profesionalen eta musikarien artean behar den elkar lana azpimarratzearen.

Hitz gakoak: kontzertu didaktikoa; kulturantzatasuna; metodologia berritzaileak; musika; dantza.

Resumen

A lo largo de esta propuesta se fomenta creación de un espectáculo didáctico para estudiantes de educación Primaria para, de esta forma, ofrecer una herramienta útil como son los conciertos didácticos a los profesionales de la educación. A través de esta propuesta se abre una vía para el trabajo de la multiculturalidad en las aulas, un tema que está tan en auge en la sociedad de hoy en día. Para ello se proponen una serie de actividades relacionadas con danzas y músicas de otras culturas con las cuales se intentan trabajar el respeto y la tolerancia hacia ellas. De esta forma se intentan promover las metodologías innovadoras tan necesarias para promover una educación de calidad en nuestras aulas. Además de remarcar la importancia del trabajo en grupo que deben realizar los profesionales de la educación y los músicos a la hora de preparar un concierto didáctico.

Palabras clave: conciertos didácticos; multiculturalidad; metodología innovadora; música; danzas.

Abstract

With this proposal we encourage the creation of a didactic show for primary school students in order to provide a useful tool such as educational concerts for education professionals. Through this article, we propose a new strategy for multiculturalism work in the classroom, an issue that is booming in nowadays in our society. In order to achieve this aim, we propose a group of activities related to dance and music of other cultures, which attempt to emphasize on respect and tolerance towards them. This will help to promote innovative methodologies which are necessary to develop a quality education in our classrooms. In addition we try to highlight the importance of teamwork between professional educators and musicians when preparing an educational concert

Keywords: educational concerts, multicultural, innovative methodology, music, dances.

Aurkibidea

Sarrera

1. Lanaren Helburuak

2. Aurrekariak

2.1. Musika hezkuntzan

2.2. Metodologia berritzaileak

2.2.1."musika sentitu"

2.2.2."musika sortu"

2.3. Dantzak

2.4. Kontzertu didaktikoak

3.Marko teorikoa

4.Material eta metodoak

5.Proposamen didaktikoa

5.1.Kontzertuaren helburu orokorrak

5.2.Oinarrizko gaitasunak

5.3.Kontzertuaren helburu zehatzak

5.4. Kontzertu didaktikoa

5.4.1. kontzertu aurretiko jarduerak

5.4.2. kontzertuaren eguna

5.4.3. kontzertu ondorengo jarduerak

6.Resultados

Conclusiones y cuestiones abiertas

Erreferentziak

Eranskinak

1.eranskina

2.eranskina

3.eranskina

4.eranskina

5.eranskina

6.eranskina

SARRERA

Proposamenean zehar, kulturantzitasuna ikasgelan lantzeko aukera bat eskaintzen dugu. Honen bidez hezkuntzako profesionalei kontzertu didaktiko bat aurrera eramateko baliabide bat proposatu nahi da, kasu honetan kultura desberdineko musikak eta dantzak erabiliz multikulturalitatea lantzeko.

Dakigun moduan, azken urteetan aurrerapen handiak egon dira teknologiaren munduan eta honek funtsezko aldaketak eragin ditu bizitzeko moduetan, ekoizpen harremanetan, mugimendu demografikoetan, lorpen teknologikoetan... honi esker komunikabideak asko hobetu dira. Ondorioz, kulturantzitasun gero eta garatuagoa aurkitzen dugu. Lehen guztiz ezezaguna zen kultura bat, orain, komunikabideek eskaintzen dizkiguten baliabide anitzei esker, edozein pertsona ezagutu dezake kultura honen barruan aurkitzen diren ezaugarri aberats guztiak.

Nahiz eta orain aipatutako teknologiaren aurrerapenak jakintasunaren eta kultur desberdinen arteko errespetua sustatu duen, oraindik ere orokorrean tolerantzia gabeko gizartean bizi gara, honen adibide argienak, gure eguneroko bizitzan ematen diren gertaeretan aurkitu ditzakegu, hala nola, egunero egunkarietan edota albisteetan ikusten ditugun erlijio arteko gatazketan, arrazakeriarengatik jasandako heriotzak... hauek guztiak agertzen dute, kultur desberdinen elkarbizitza askotan oso zaila egiten zaigula.

“El mundo se vuelve pequeño y estrecho cuando alguien solicita que le hagamos sitio para sentarse a nuestro lado. Damos ejemplos incontables de eso que Kant llamó la “sociedad insociable” del ser humano: somos y no somos sociables, necesitamos a los demás y los detestamos por mil razones distintas y a menudo vergonzantes. Pocas veces puede decirse que lo que provoca intolerancia es razonable. Y lo grave, desde un punto de vista ético, no es la irritabilidad cotidiana que entorpece las relaciones personales sino que la intolerancia trascienda el nivel individual y entre en la vida colectiva” (Camps, 1993, 8. orr)

Eguneroko bizitzan arraza desberdineko pertsonen artean aurkitzen ahal ditugun zenbait arazo desberdin, talde etnikoen arteko ezagumen faltarengatik dira besteak beste. Ikasgelan, txikitatik, haurrei, demokrazia, errespetua, tolerantzia... sustatzen dituzten jarrerak irakatsiko bagenie agian ez genuke guztiz ekiditeko baina kulturantzitasunaren errespetuan aurrerapauso bat lortuko

genuke. Hezkuntza arloko profesional guztiek gai hau landu behar dute, eskoletan, eguneroko gizartean eman daitezkeen egoerekin lan eginez ikasleekin. Kulturaliztasun honen errespetua bermatzea izan behar da irakasleen helburu nagusietako bat, gure ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dutelako.

Irakasleek batez ere, ezin dituzte begiak itxi eta beste aldera begiratu errealitate honen aurrean ezta honek eragiten dituen arazo eta gatazka guztiak ekidin. Hezkuntza prozesuaren barruan integratu behar dira, baina beti elkarrizketan oinarrituz besteenganako errespetu eta duintasuna bermatuz. Betiere gai honen inguruan sortu daitezkeen gatazkek hizketan konponduz.

Eskola munduan, badaude errespetu eta tolerantzia hau lantzeko proposamen eta teknika desberdin aunitz, baina lan honetan hemendik aurrera heziketa artistikoaren barruan aurkitzen dugun baliabide baten inguruan arituko gara, kontzertu didaktikoak.

Gaur egungo gazteek, ez dute musika, musika soil bat bezala ulertzen, baizik eta taldeen arteko mugak jartzeko tresna bat bezala. Hau da, musika mota bat entzuten duten gazteak, orokorren arropa berdina eramaten dute, erabiltzen duten mintzaera oso antzekoa da, ibiltzen diren tokiak bereziak dira eta gehienetan musika berdina entzuten dutenak taldeetan elkartzeko dira haien iritzi musikal bera dutenekin.

“Niños y jóvenes se están dividiendo en tribus, cuya delimitación de fronteras no es geográfica. A partir de estas opciones surgen las camisetas, los piercings, el cabello, la ropa. La actitud, todo formando parte del aparato de demarcación de las identidades asumidas por los jóvenes.” (Hentschke. 2009, 24.orr)

Bizitza pertsonala eta publikoa erlazionatzeko erabiltzen da musika gaur egun. Simon Frith-ek “fan” fenomenoaren aipatzen du bere lanetan. Pertsona bakoitzak aukeratu duen musikaren eta bere izaera definitzearen arteko lotura egiten du. Izaera honen bidez, gizabanakoek mundu honetan toki bat bilatzen dute, hau da, talde batean egokitzea, bere aukera berdinak dituzten pertsonekin. Honetaz aparte, bizitzan zehar lortutako oroitzenak handitzen joaten diren heinean, musikaren bidez bizikizun hauek denbora eta toki jakin batean kokatzen dira. Beraz, musika talde identifikazioarekin lortura bilatzeko

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

erabiltzen dela ondorioztatu du Frith soziologo eta musikologoak (Cruces, 2001).

Momentu honetan agertu behar dira eskolak eta kultur kontseiluak. Gazteei proposamen desberdinak aurkeztu behar dizkiete musika mota desberdinekin esperimentatzeko eta gure kulturaren erroetan aurkitzen ditugun adierazpen tradizionalak ezagutzeko aukera izateko eta denbora pasa ahala hauen desagertzea ekiditeko. Hala ere, arazo honen trataera ez da soilik eskola arloan eman behar, gizartearen zenbait arlo desberdinetatik ere landu behar da.

“...ya no es una tarea exclusiva de los profesionales de la educación, sino que es un problema socio-político en el cual intervienen agentes, grupos y medios diversos” (Imbernón, 1999, 23. orr).

Hau lortzeko baliabide oso erabilgarri bat, kontzertu didaktikoak dira. Kontzertu didaktikoek, aukera aunitz ireki ahal ditu gai desberdinen trataeran. Ikasleen adimen musikala sustatzeko teknikarik aberatsena da, modu desberdinez planteatu baita, instrumentuak aztertzeo, kultura desberdinak ezagutzeko, musika eta dantzaren arteko erlazioa ulertzeko... Horregatik erabaki dugu kontzertu didaktiko bat proposatzea aurretik aipatutako kulturantzatasunaren errespetua bermatzeko. Mota honetako proposamenarekin, kultura desberdineko musika eta dantzak ezagutuko dituzte ikasleek eta hau aitzakia izango da, ikasleen arteko esperientzia aberatsak aurrera eramateko. Ikasleen kultura pertsonala eskaintzen dituen atal guztiak ulertuz eta munduan aurkitzen ditugun kultura desberdinen berezitasunak errespetatuz.

Kontzertu didaktikoek hezkuntzarako erabilpen aunitz dituzte. Gainera, hezkuntza artistikoaren kurrikulum ofizialera begiratzen badiogu, kulturartekotasun eta diskriminazioen inguruko gaiarekin erlazio handiak aurkitzen dira. Horregatik, hemendik aurrera proposatuko den kontzertu didaktikoaren helburu nagusia, kulturartekotasunaren errespetua izango da, baita bakoitzaren etekin pertsonalak errespetatzea eta besteen kritikak onartzen ikastea.

Beraz, sarrera honetan islatzen saiatu dugun bezala, ikusten dugu kulturantzatasuna gure kulturaren edozein arlotan aurkitzen dugun atal bat dela eta gure ikasleek honen errespetua lortzeko, kontzertu didaktikoak baliabide aberats bat izan daitezkeela.

1. LANAREN HELBURUAK

Lan honen bidez, lortu nahi den helburu nagusia, sarreran esan dugun moduan, ikasleek kulturaztasunaren garrantzia ulertzea eta errespetatzea izango da. Era berean, honako helburu hauek lortu nahi ditugu buruturiko lanarekin; musikaren garrantzia ulertzea, kontzertu didaktiko erabilgarria proposatzea, kontzertu didaktikoen onurak adieraztea, kulturaztasunaren garrantzia ulertzea, musikaren entzumenaz gozatzea, dantza, musika eta kulturaztasunaren arteko erlazioa ulertzea, kulturaztasunaren trataerarako baliabide berriak eskaintzea, hezkuntza artistikoaren onurak ulertzea eta hezkuntza artistikoaren historia ezagutzeko.

Proiektu honen bidez landuko diren helburuak azaltzea interesgarria da (García González 2005) lortu nahi diren helburuak argi izanik, errazagoa bilakatzen da proposamena planteatzea.

- Musikaren garrantzia ulertzea: hezitzaileek, historian zehar aurkitzen dugun baliabide honek eskaintzen dizkigun aukerak ulertzea eta hauekin lan egiten ikastea etekinak ateratzeko.
- Kontzertu didaktiko erabilgarria proposatzea: gai honetan interesaturik dauden pertsonentzako eta eskola eta musikarien arteko elkarlaketaren bidez aurrera eramateko kontzertua prestatzeko gida bat emanaz.
- Kontzertu didaktikoen onurak adieraztea: proposamenarekin musika hezkuntzan aurkitzen dugun baliabide aberats honen zenbait baliagarritasun aurkeztu, hala nola, gai desberdinen trataera, musikarekiko interesaren bermatzea... eta beste hainbat gehiago dituela erakutsi.
- Kulturaztasunaren garrantzia ulertzea: gaur egungo gizartean gai honen inguruan aurkitzen ditugun arazoei ikasgeletan garrantzia ematea ikasleek eguneroko bizitzan aurkitu dezaketen egoeren aurrean naturaltasunez aritzeko.

- Musikaren entzumenaz gozatzea: musikaren entzuketarako proposamen desberdinak eskaintzea, ikasleei aukera hauek erakusteko eta haien gogo musikala aukeratzeko momentuan, mota desberdinak izatea.
- Dantza, musika eta kulturantzaren arteko erlazioa ulertzea: proposamen didaktikoaren ariketen bidez, hiru atal hauek lantzeko nola erlazionatu dezakegun erakustea.
- Kulturantzaren trataerarako kontzertu didaktikoaren proposamena eskaintzea, gaiarekin erlazionatutako ariketak aurrera eramanez.
- Hezkuntza artistikoaren onurak ulertzea: hezitzaileek hezkuntza artistikoak eskaintzen dituen baliabide erabilgarri batzuk ulertzea proposamen honekin.
- Hezkuntza artistikoaren historia ezagutzea: heziketa arloan musika eta dantza izan dituzten pausoak historian zehar azaltzea. Baita honekin hainbeste erlazioa duten kontzertu didaktikoen aurrekariak zeintzuk izan diren ezagutzea.

2. AURREKARIAK

2.1. Musika hezkuntzan

Musikaren hezkuntza ez du betidanik paper garrantzitsu bat izan. Historian zehar, musika, hizkuntza unibertsal bat bezala ikusi izan da, edozein kulturatan aurkitzen den baliabidea. Hala ere gaur egungo hezkuntzan aurkitzen dugun moduan orain dela urte gutxi sartu da. Gaur egun, musikaren bidez ikasleen garapen pertsonala sustatzen saiatzen baita.

“La música es una de las grandes opciones de nuestro tiempo. Es un arte, una ciencia, un medio masivo de comunicación social, un valor humanístico y un campo ilimitado de investigación y erudición.”(Zubrisky, 1990, 2. orr)

Heziketa musikala, musikaren arloaren inguruan irakaskuntzaren prozesuetan aurkitzen dugun guztia hartzen du, hezkuntza sistema, programak, irakaskuntza metodoak, instituzioak, irakasleak... eta honen barruan aurkitzen ditugun irakaskuntza mota guztiak, derrigorrezko hezkuntza, hezkuntza ez formala, kontserbatorioak... esan dugun moduan, gaur egungo kulturaren, hezkuntza musikala oinarriturik dago eskola guztietan baina hau ez da beti horrela izan. Hurrengo bi legeetan irakurri daitekeenez, 1990 urtean, LOGSE legeak bultzada handia eman zion hezkuntza musikalari.

“Comunicación y representación: Debe contribuir a mejorar las relaciones entre el individuo y el medio; el niño debe aprender a representar y expresar sus sentimientos, emociones, etc., mediante distintas formas de comunicación. Los contenidos se refieren a: (...) La expresión musical.” (Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre de 1990, de Ordenación General del Sistema Educativo.).

“EDUCACIÓN PRIMARIA Es el primer nivel de la enseñanza básica. Es obligatoria y gratuita y tiene un carácter global e integrador. (...) Los objetivos generales de este nivel pretenden que el alumno se comunique a través de los medios de expresión verbal, corporal, visual, plástica, musical y matemática, así como que comprenda y produzca mensajes orales y escritos en lengua castellana, en su caso, en la propia de su comunidad; también ha de comenzar a comunicarse en una lengua extranjera.” (Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre de 1990, de Ordenación General del Sistema Educativo.).

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

1990. urteko LOGSE legeak musikaren beharra onartzen du eta honi bultzada handia eskaintzen dio. 2002. urtearen amaieran, Real Decreto 3473/2000 oinarritzko irakaskuntza egokitzen da baina, hala ere, oraindik ere musika talde honen barruan sartzen da eta derrigorrezko irakasgai bat bezala jarraitzen du, baita LOCErekin ere. Gaur egun arte indarrean egon den legean nahiz eta musikako aditu batzuen hitzetan, 2006. urteko LOEn, atzerapen handia izan da musika hezkuntzan.

“Un tratamiento de la educación musical adecuado a su potencial en la formación integral del alumnado, debería guardar relación con las horas lectivas que se contemplan en la organización curricular de las etapas de primaria y secundaria, circunstancia que no se ha producido al desarrollar la LOE, lo que supone un paso atrás respecto a su presencia en las enseñanzas surgidas de la implantación de la LOGSE.” (Calvo, 2008).

Nahiz eta gaur egungo azkeneko lege honekin atzerapen bat eman dela uste duten aditu batzuk, esan dugun moduan aurrerapen handiak eman dira arlo honetan. Nahiz eta legeak ez diren musika sustatzen dutenak zuzenean, metodologia aktiboari esker agertu dira gehienbat baliabide desberdin asko ikasleekin musika lantzeko. Baliabide hauen artean bat azpimarratuko dugu hemendik aurrera. Kontzertu didaktikoak.

2.2. Metodologia berritzaileak

Metodologia aktiboen inguruan arituz, interesgarria iruditu zaigu *Eskola Aktiboari* buruz hitz egitea, horretarako, Maria Montessoriren teoriak azalduko ditugu.

Maria Montessori (Italia, 1870) ingeniaritza eta medikuntza ikasi zituen, ikasketa hauek betetzen zituen Italiako lehenengo emakumea izanez. 1896. urtean praktikak hasi zituen Unibertsitateko psikiatria klinikan eta, bertan, haur atzeratuekin lan egin ondoren, haiek, beren inguruan dutenaren arabera ikasten dutela ikusi zuen. 1901ean unibertsitatara bueltatu zen psikologia eta filosofia ikastera. Haurrak laguntzeko asmoarekin, 1906an “La casa de los niños” ireki zuen 60 neska-mutilekin. Honen bidez, haurren ikaskuntzak bermatu zituen modu natural batean, hau da, nagusiek inposatutako ikaskuntza bat jarraitu gabe. Eskola honi esker sortu zen aurrerago Maria Montessoriren metodoa.

Montessori metodoa, haurren beharretan oinarritzen da, motibazioaren bidezko ikaskuntza jasotzeko egoera erabiliz. Montessoriren programan, konpetitiboak ez diren jarduerak proposatzen dira, honen bidez, bakoitzak bere buruaren irudiaren garapena sustatzen da, honen bidez arazoak aurrera eramateko konfiantza bermatuz optimismoarekin. Haurrak helduen laguntza behar du gauza asko egiteko, baina nagusiek haienganako interesa demostratzen badute, haienganako konfiantza lortuko da. Hau kontutan izanda, haurren garapenari egokitutako ariketa desberdinen artean aukeratu behar dute haien interesen arabera. Honi esker, haurren askatasuna lortzen da eta mailaka independentzia eta autonomia pertsonala lortzen dute, haienganako konfiantza eta segurtasuna bermatuz. Montessori metodoa, haurrek ikasteko gogo naturalean oinarriturik dago eta honi esker, haurra oraindik egiteko prest ez dagoen zerbait egitea ekiditeko da eta bere garapen naturalean lagunduko du. Esan bezala, ariketa desberdinak proposatzen zaizkie helduek aukeratu gabe, modu honetan, haur bakoitza bere burua eta gorputza garatu dezake arlo desberdinetan, eguneroko bizitzan (bera eta bere ingurukoak zainduz), garapen sensoriala (zentzumenak sustatuz), hizkuntza, geografia, matematikak, zientziak, artea, dantza eta musikaren garapena landuz. Metodo honi esker, besteak beste, metodologia berritzaileen garapena eman zen autore desberdinen eskuz.

Musika hezkuntzaren planteamendu berritzaileak, kontzertu didaktikoak bezala, ez dira betidanik erabili. Hauen erabilpenaren aurrekariak aztertzeko hainbat urte atzera joan behar gara autore desberdinak aztertzeko asmoarekin.

Maria Montessoriren metodo aktiboa eta honek sorturiko *Eskola berria* izeneko hezkuntza proposamena eredutzat hartuta, musikari zein pedagogo ezberdinek planteamendu berriak aurkeztu zituzten musika hezkuntzaren barruan, Emile Jaques Dalcroze, Edgar Willems, Paul Hindemith, Maurice Martenot, Carl Orff, Bela Bartok, Zoltan Kodaly, John Paynter, edota Murray Shaffer. (Díaz, 2010, 55-58. orr)

Proposamen berri hauek ez ziren denak batera suertatu, baizik eta bi epe nagusitan, lehendabizi Europa erdialdeko proposamenak, non musika sentitzea zuten helburu eta bigarrenik musikaren sormenari garrantzia eman zioten proposamenak.

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

2.2.1. *Musika sentitu*

XIX mende erdialdean, Zoltan Kodály eta Bela Bartok (hungariar musikariak, ikertzaileak), musikaren aplikazioa hezkuntza arloan interesa izan zuten konpositoreak izan ziren. Zoltan Kodaly, Hungarian jaiotako pedagogo, musikari, konposatzaile eta etnomusikologoa izan zen. Metodo bat asmatu zuen musika hezkuntza bermatzeko eta munduan zehar hedatu zuen. Metodo honen helburu nagusia musika ahotsaren bitartez erakustea da, herriko folklorean oinarriturik. Bere lan garrantzitsuena eskolara herriko musika moldatzea izan zen. Berarentzako hungariar musika hezkuntzan Antzinako Grezian bezain garrantzitsua izan beharko litzateke. Musika ez jakiteak kultura musikala oztopatzen du. Kodalyren ustez, musika eskolan bertan hasi behar den esperientzia bat da. Horretarako ahotsa erabiltzen du etengabe. Umeak txikiak direnetik, musika hizkuntza hungariar folkloreak abestien bitartez ikasten dute. Kantua afinatua egon behar du, eta ia beti a cappella-z abesten da. Ahots-kantua taldean, diziplina eta onurak ekartzen ditu gure bizitzan. Soziala da. 1906an, Bartoken laguntzarekin, Hungriako kultura tradizionalaren adierazle musikala eta artistiko guztiak biltzen hasi ziren. Haurrentzako ehunka abesti bildu zituzten eta abesti hauek eskalaren, estiloaren eta moduaren arabera sailkatu zituzten *Corpus Popularis Hungaricae* liburuan. Esan dezakegu, garai horretan munduko hainbat herrialdetan ematen den nazionalismo kutsuaren eraginez hasi zirela kultura bakoitzeko musika, arte eta dantza tradizionalak biltzen, kultura guztiak haien herriaren garrantzia erakutsi nahi zioten munduari eta hori lortzeko, haien aurreko historia etorkizunera iristea lortu behar zuten. Horregatik hasi zen musika herriko eta dantza herriko jendeari erakusten.

“La música del pueblo (...) puede levantarse por encima de la basura que se amontona sobre ella a fin de emplearla para contruir un arte más elevado.” (Kodály, 1955, 164. orr).

Kodalyk proposaturiko musika metodoaren barruan garrantzi berezia eman zion, solfeo silabikoari, solfeo erlatiboari, fononimia, pentafonia eta herri kantuek lantzeari. Solfeo silabikoa erritmo figura bakoitzarentzako silaba bat erabiltzean datza. Solfeo erlatiboa berriz, noten izenak mantenduz soinu ezberdinak egitean oinarritzen da. Fononimiaz eskuak notak identifikatzeko

modua bilakatzen dira, eta pentafoniaren erabilerarekin Hungariar kantuek erabiltzeko aukera ikusi zuen, horrela berak herri kantuen bilaketan egindako lanarekin uztartuz. Aipatu dugun nazionalismoarekin erlazionatu dezakegu azkeneko atal hau, herriko kantua kanta herrikoiekin, solfeoarenganako bidea lortu nahi zuen Kodaly, kanta hauek motibazio moduan erabiliz. Herriko kanta edo kanta tradizional hauek kulturantzatasunaren trataeran erabili daitezke, kultura guztiek baitute herriko kanta tradizionalak eta hauek entzunez kulturantzatasunaren ulertzea eta errespetatzea bermatu daiteke.

Metodo honek hezkuntza musikalean ekarri zituen aurrerapen eta hobekuntzei esker, mundu osotik Hungariara joan ziren musikako hezitzaile asko honen aurrerapen guztiak aztertu eta ikasteko. Lehen Hezkuntzako eskoletan hain aurrerapen handiak eman zirela ikusi zuten, non Japonia, Australia, Ipar eta Hego Amerika eta munduko beste hainbat eskoletan oraindik ere erabiltzen da metodo hau eta hezkuntza desberdin askotara itzuli egin dira metodoaren jarraibideak, hala nola, ingelesa, espainiarra, alemaniera, txinatarra. (Àngels Subirats, 2007, 63-69 orr.)

Emile Jaques Dalcroze Viena (1865) Europako zenbait herrialdetan jaso zuen bere formakuntza musikala, Frantzia batez ere. 1892an Ginebrako kontserbatorioan irakasle moduan hasi zen. Urte horietan zehar konturatu zen, zenbait ikasleek arazoak zituztela entzuketan eta honi esker konturatu zen, gorputz mugimenduek heziketa musikalean daukaten garrantziaz. Beraz, soinuaren barne irudia sustatzeko zenbait ariketa proposatu zituen. Ariketa hauen bidez, ikasleen entzuketaren hobekuntza bilatzen zuen Dalcozek. Gainera, ariketa hauek aurrera eramateko, taldekako lana proposatzen zuen. Talde hauetako ikasle guztien parte-hartzea ezinbestekoa ikusten zuen, bai abestuz edota gorputz mugimenduak eginez. Hauek izan ziren bere metodologiaren oinarriak: ikasle bakoitza, espiritualki, fisikoki eta mentalki sentitu behar ditu soinuak eta musika. Taldekako lanaren bidez, egokitzeko, imitatzeko, integratzeko eta gizarteratzeko gaitasunen sustapena lortzen da. (Del Bianco, 2007, 23-32 orr.)

Edgar Willems Belgika (1890). XX. Mendeko pedagogo musikala handien barruan kokatzen da. Bere metodoaren garapen gehiena Suizan egin zuen. Autore honen helburu nagusia, edozein neska-mutilarentzako, musika Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

erakusteko metodo bat sortzea izan zen. Hau lortzeko, bere metodoa musikaren eta gizakien arteko erlazio psikologikoetan oinarritu zuen. Honi esker, ikasleek arte musikalaren oinarriak lortzea nahi zuen. Horretarako hezkuntza praktikoari eman zion garrantzi gehiago teorikoari baino. Willemsek proposatu zuen metodoaren bidez, haurraren gaitasunen garapena ematen da, haur bakoitzaren adin, gaitasun psikologiko, mental eta mugimendukoetara egokitutako kontzeptu eta prozesu desberdin batzuk erabiliz. Hauek izan ziren bere metodologiaren oinarri garrantzitsuak. Ezinbestekoa da hezkuntza musikalaren oinarri psikologikoak ezagutzea eta baita haurren garapen psikoebolutiboa ere. Osagai musikalak, hala nola erritmoa, melodia eta armonia, gizakien izaeraren hiru atalekin lotu zituen: fisiologikoa, afektiboa eta mentala. Erritmo desberdinen ezagupena eta inprobisazio erritmikoa landu zituen.(Fernández, 2007, 43-52 orr.)

Paul Hindemith Alemania (1895). XX. Mendeko musikari alemania garrantzitsuenetariko bat da. Konpositorea, instrumentu jotzaile, orkestra zuzendaria eta musikaria izan zen. Autore honek interes handia erakutsi zuen musikari profesionalen formakuntzan eta klaseetan erabiltzeko lan batzuk egin zituen. 1935 eta 1937 artean, Turkiako gobernuaren hezkuntza planak egiteko laguntza eskaini zuen. Bere garairako oso proposamen aurreratuak zituen Hindemithek eta aurreragoko pedagogo batzuen oinarri izan zen, hala nola John Paynter eta Murray Schaferrengan hain zuzen.(Díaz 2010, 62-63.orr)

Maurice Martenot Paris (1898). Ingeniaritza ikasi zuen musikaz aparte. Honen eraginez, uhinezko instrumentua sortu zuen, instrumentu elektrikoen aurrekaria. 1930ean, eskola berrian eta hezkuntza aktiboan oinarritutako lan garrantzitsu bat aurrera eraman zuen. Bertan, hezkuntza musikala, gizakien formakuntza globala lortzeko ezinbesteko gauzatat hartu zuen eta bere metodoaren bidez, hezkuntza musikala, hezkuntza orokorrean barneratzeko osagaiak proposatu zituen. Hauek izan ziren bere metodoaren oinarrizko osagai batzuk. Garapen erritmikoa, erlaxazioa, entzumena, intonazioa, solfeoan hastapenak eta armonia barnean hartzen duen hezkuntza musikala. Gorputzaren erlaxazioa eta arnasketari garrantzia ematen zaio, honen bidez, gorputzaren atsedena lortzeko asmoarekin. (Àngels, 2007, 62-63 orr.)

Carl Orff Munich (1985). Musikagile alemaniarra izan zen. Batez ere “Carmina Burana” lanarengatik da ezaguna eta baita haurrentzako hezkuntza musikalaren proposamen bat garatzeagatik, “Schulwerk edo Orff metodoa”. Metodo bat baino, hezkuntza musikalerako sistema handi bat osatu zuen, non hezitzaileentzako erantzun eta baliabideak eskaintzen dira, haurren garapen musikal naturala hobesteko. Metodo honetan aipatzen da heziketa musikalaren hasierako pausuak erritmoan egon behar direla, eguneroko bizitzan ematen diren egoeretan aurkitu daitekeen zerbait delako. Autoreak proposatzen zuen, hurrek erritmoaren osagairik sinpleenekin aurrepausuak ematea, hau da erritmoa, pulstua eta azentua. Haurren abestiak eta errimak erabiltzen dira hasieratik eta abesti hauek erabiliz, inprobisazio jokoak proposatzen dira, horrela haurraren berezko erritmoa eta adierazpena azaleratzen da. Metodoaren ezaugarriei dagokienez, elementu musikalen irakaskuntza lortu nahi da hauen hasierako egoeratan, hau da, jatorrizko egoeran. Horretarako erabiltzen diren instrumentuak teknika berezirik behar ez dutenak dira, Alde batetik Orffe-ek gorputz perkusioaren erabilera proposatu zuen, horretarako oinak, eskuka, belauin-gainak eta oinak erabiltzen eta bestalde, perkusio txikiaren erabilera bultzatu zuen. Perkusiozko musika tresnen barruan hurrengo bereizketa egin zuen, soinu zehatza (afinatua) sortzen duten musika tresnen erabilera, horretarako xilofonoa eta metalofonoa erabiliko zituen eta bestetik soinu ez zehatza (ez afinatua) sortzen dutenen erabilera, hala nola, kaxa txinatarra, triangelua eta danborra. Haurren hasierako interes naturaletatik lanean hastea, abestea, dantzatzea eta instrumentuak jotzea izan zen Orffen proposamenaren oinarria, “musika eta mugimendua” izanik bere lan pedagogikoa laburtzen duten hitzak. Hau izan zen Orffen lan pedagogikoaren oinarria. (López, 2007, 71-76 orr.)

2.2.2. *Musika sortu*

Murray Schafer (1933). Autore honen proposamen pedagogikoak, praktika aktibo eta motibatzaile baten bidezko sorkuntzan eta frogetan oinarritzen dira. Hauen bidez, bakoitzak bere buruari entzutea errazten dutenak. Bere lanetan, isiltasuna eskatzen du eta eguneroko bizitzan aurkitzen dugun soinu kutsapena salatzen du. Bere proposamenarekin, metodologia tradizionalen ideia asko apurtu zituen. Sormenaren garrantzia azpimarratzen du, nahiz eta antzezten Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

den musika kalitatezkoa ez izan, berak bere garrantzia bultzatzen saiatzen da. (Díaz, 2010, 70-71 orr.)

John Paynter (1944). 1975. urtean, *Sound and Silence* lanean, Paynterrek, hurrei soinuekin sormenaren bidez lan egiten lagundu zien, bakoitzak bere musika pertsonala sortuz. Honetaz aparte, 1999an *Sonido y Estructura* lanean, gida praktikoa bat eskaintzen du ikasleekin lan egiteko. Bertan, antzezpenei abenturazko kutsu bat ematen die ikasleen erakargarritasuna bermatzeko. (Díaz, 2010, 71-72 orr.)

2.3.Dantzak

Dantza, gorputza erritmo batekin mugitzean datza, gehienetan musika bat jarraituz, bai emozio bat adierazteko, ideia bat eta baita istorio bat kontatzeko ere. Historian zehar dantzak aldaketa jaso dute gizartean emandako aldaketekin erlazionatuak, horregatik esan dezakegu ohitura historiko handia duen artea dela. Greziar gizartean dantza arte bat zela esaten zen. Erdi Aroan, elizaren eraginez garrantzi gutxi izan zuen dantza, baina errenazimenduan, berriro ere berpiztu zen. Barrokoan garapena jasan zuen Frantziako *ballet de cour* esker. XVIII. Mendean zehar, Frantzian jarraitu zuen garapen honek eta lehenengo dantza eskola sortu zen 1713. urtean. Erromantizismoaren garaian, dantza herrikoiek eta folklorikoek berriro ere hartu zuten garrantzia eta hemendik dantzaren nazionalismoaren ekarpena eragin zuen, honekin, dantzaren bidez istorio bat kontatzen hasi zen Moskun. Hauek izan ziren kontzertu didaktikoetan dantza sartzearen aurrekariak, bertan istorio bat kontatzen saiatzen zen koreografia desberdinak egiten. *La bella durmiente*, *El cascanueces* eta *El lago de los cisnes* izan ziren garrantzitsuenak Marius Petipa eta Piotr Chaikovski konpositoreenak. Obra hauek ez ziren funtsean kontzertu didaktikoak izan, ez baitzituzten kontzertu didaktikoa izateko jarraitu beharreko ezaugarriak, baina urteetan zehar eman zaien erabilpen eta trataerarengatik, dantzak kontzertu didaktikoetan erabiltzearen aurrekaritzat hartzen dira. Hemendik aurrera, dantza klasikotik urrunketa bat eman zen espresionismoarekin. Azkenik, postmodernismoaren bidez, berriro ere dantza tradizionalak eta herrikoiak indarrean jarri ziren eta gaur egun arte. XX. Mendean zehar, dantza mota desberdinak sortu egin dira, hala nola, foxtrot, charlestón, claqué, chachachá, tango, rumba, samba, salsa, rock and roll, funky, hip hop, sabel dantza, breakdance... (<http://www.tododanza.com/historia-de-la-danza/> eta <http://moldes1.tripod.com/tecnica/historia.html>)

“El movimiento corporal en el individuo es un acto natural que forma parte de cualquier proceso de aprendizaje, sea de desarrollo psicomotriz, desarrollo físico o incluso intelectual. Si a este movimiento natural del niño le incluimos melodías y

sonidos, este movimiento natural se enriquece con el ritmo musical y se transforma en movimiento rítmico o movimiento musical. Con el cual se expresan sensaciones y emociones a los demás. Para Emile Jacques-Dalcroze (Jacques-Dalcroze, 1965) existe una conexión instintiva entre el hecho sonoro y el movimiento corporal, de manera que las impresiones musicales despiertan imágenes motrices y la música no se percibe sólo con el oído, sino con todo el cuerpo. El cuerpo se convierte así en un gran oído interior, hasta el punto de que cualquier hecho musical, sea de carácter rítmico, melódico, armónico, dinámico o formal, puede ser representado con hechos corporales” (Martin, 2005,125. orr).

2.4.Kontzertu didaktikoak

Musika hezkuntzaren aurrekariak eta dantzaren garrantzia aztertu ondoren, Kontzertu didaktikoen aurrekariaren inguruan hitz egingo dugu. Sergéi Prokófiev Ukraniar jaio zen 1891. urtean. Musikagile eta pianista errusiarra izan zen. 1904. urtean bere ikaskuntza musikala sustatu zuen San Petersburgoko kontserbatorioan sartuz. Bertan 10 urtez ikasketak egin ondoren Anton Rubinstein saria jaso zuen bere *1. piano kontzertua* lanagatik. 1917an *Klasikoa* izeneko lehen sinfonia idatzi zuen. 1918-1932 artean Errusiatik kanpo bizi izan zen eta hainbat lan aurkeztu zituen munduko toki desberdinetatik. *Hiru laranja amodioa* 1921ean, *Altzairuzko pasabidea* 1928an, *Seme galdua* 1929an... Baina lan famatu guzti hauek aurkeztu ondoren Errusiara itzuli zen 1932. urtean. Bertan, 1936an idatzi zuen bere obrarik famatuenetarikoa, *Pedro y el lobo*.

Lan hau sortu zen, Moscuko haur antzoki zentralaren zuzendaria, Natalia Satzen enkarguz, Prokofievek haurrentzako erakargarria den istorio bat sortu zuen orkestra batek eskaintzen dituen baliabideekin lagunduz, kasu honetan instrumentu bakoitza istorioaren pertsonaia batekin erlazionatu zuen pertsonaia hauen ezaugarriren bat kontutan hartuz. Horretarako *Pedro eta otsoa* erabili zuen. Esan bezala, obra enkargu bat izan zen, eta ez zituen hasieratik helburu pedagogikoak proposatu. Baina obra honekin egin den erabilpenarengatik, kontzertu didaktikoen aurrekaria bihurtu da.

Haurrentzako istorio bat kontatzen da lan honetan, orkestra bat erabiltzen da eta baita narratzaile edo aurkezle bat. Helburu nagusia, hurrek musika instrumentu desberdinak ezagutzea izan zen, musika klasikoarenganako Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoen proposamena.

hurbilketa bermatuz, ahalik eta modu interesgarriena erabiliz. Istorioan zehar, gertaera desberdinak ematen dira pertsonaia bereizgarriekin. Pertsonaia bakoitzak ahots berezkoa du (grabeagoa, agudoagoa...) eta honek haurren desberdintzea errazten du, gainera, eszenatokian agertzen den animalia edo pertsonaia bakoitza, instrumentu batekin erlazionatzen ditu (txoria flautarekin, otsoa tronparekin, gerlariak tinbalekin...). Honetaz aparte, gertaera bakoitzean musika instrumentuak doinu desberdinak antzezten dituzte eta honek ere laguntzen du. (Guardiet, 2005,1-22 orr.)

Hain garrantzi handia izan du obra honek, non urteak pasata oraindik ere antzezten da artista eta munduko orkestra desberdinen eskutik. Honi esker kontzertu didaktikoen aurrekaria bihurtu da eta beste mota honetako obra asko atera dira, hala nola, T. Harsanyiren *El sastrecillo valiente*, Poulenc-en *El elefante Babar*, *Piccolo*, edo A. Ridout-en *El toro Fernando*...

Aztertu den moduan historian zehar musikaren eta dantzaren munduan aldaketa handiak eman dira, ez beti hobekuntza emateko, eta aldaketa hauekin batera baliabide berriak sortu dira gai desberdinak lantzeko hezkuntza artistikoaren bidez. Kontzertu didaktikoak bezala. Hala ere, orain dela bi hamarkada, Espainian interes oso murriztua zegoen kontzertu didaktikoen inguruan, Mota honetako kontzertuak antzokietan edo aretoetan ikustea ia ezinezkoa zen, hauen etekinak ere ez ziren aztertzen, ez ekonomikoak, ezta hezkuntzaren barrukoak ere. Azkeneko hogeitaz urteetan, egoera hau aldatu da. Gaur egun, mota desberdineko instituzio publiko eta pribatuen bidez, hala nola, orkestrak, musika taldeak, udaletxeak, unibertsitateak, banketxeak, e.a. kontzertu didaktikoen agerpena ugariagoa da, gainera, sortzen diren ekimen pertsonal guztiak, gero eta ugariagoak eta biztanleriari bideratuagoak dira.

Eguneroko bizitzako jardueretan ez da arraroa kontzertu didaktikoen inguruan hitz egitea, are gehiago, zenbait arloetan, proiektu kultural batek kontzertu didaktiko baten proposamena egiten ez badu, osatugabea bezala ikusten da. Hala ere, oraindik ere aurrerapen handiak eman behar dira, batez ere kontzertu didaktiko hauen kalitateaz, publikoaren prestakuntzaz, elkarrekin prestatutako proposamenez eta ebaluaketaz hitz egiten bada besteak beste. Hau hobetzeko esfortzu gehien egin behar dira, batez ere kontzertu didaktikoen nortasuna zehazten eta kontzertu didaktiko egoki bat egiteko jarraitu behar diren irizpideak

zehaztuz. Marko teorikoan zehar, zenbait artikulua desberdinetan oinarrituta ezaugarri hauei buruz hitz egingo dugu.

3. MARKO TEORIKOA

Liane Hentschkeren (2009) hitzak hartuko ditugu kontutan kontzertu didaktikoen definizioa egiteko. Azpimarratzen du, musikariek publikoarekin elkar parte hartzeko aukera oso erabilgarria direla kontzertu didaktikoak. Elkar ekintza hauen bidez haurren eta musika mota desberdinen arteko harremanak sustatzeko baliabide on bat lortzen da. Gainera, hezitzaileentzat, tresna erabilgarri bat da ikasleak sorkuntza, antzeppen eta testuinguru kultural baten aurrean jartzeko. Hiru alderdiko harremana da, bertan musikariek, hezitzaileek eta publikoa garrantzi desberdinak dituzte lana aurrera eramateko momentuan. Horregatik, kontzertu didaktikoa dena zehaztuta dagoen zerbait izan behar da, proposamen desberdinak eskainiz eta hauen arabera egokitzapenak eginez. Hezitzaile moduan, ikasleen ikaskuntza bermatu behar da, horretarako, kontzertu didaktikoa aurrera eraman eta berehala, hobekuntzak eta aldakuntzak planteatzen hasi behar dira ikasleek jasotzen duten bizipena ahalik eta egokiena izateko. Kontzertu didaktikoak, oso garrantzitsuak dira musika hezkuntzan, baina proiektu globalizatuago batean sartzea gomendagarria da.

“A pesar de considerar los conciertos didácticos como una de las actividades educativas más importantes dentro de la enseñanza musical, pienso que estos deben ser parte de un proyecto mayor, donde existen metas, objetivos específicos, metodologías y, sobre todo, un proceso de evaluación de la eficacia de los mismos. Este trabajo debe ser multidisciplinar, integrando diferentes agentes. El trabajo, en conjunto, la colaboración, son recetas para el éxito de un programa.” (Hentschke, 2009, 24 orr.)

Hauek dira autore honek, kontzertu didaktiko bat aurrera eramateko proposatzen dituen jarraibideak. Batetik proiektu globalizat hartzen ditu, non, publikoaren elkarrekintza beharrezkoa izateaz gain, musikaren kalitatea begiratu behar da, ebaluazioa izan behar du eta gidoi baten planifikazioa behar duen.

Hauek guztiak ikusita, kontutan izan behar dira kontzertuaren iraupena, helburu didaktiko zehatzak, metodologia baten erabilpena, ebaluatzeko irizpideak, ikasleen aurre-jakintzak eta aurkezle baten erabilpena.

Kontzertu didaktikoak haur eta gazteentzako bereziki prestatuak dauden kontzertuak dira, bai Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta baita

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat ere. Haren helburu nagusiak, publiko gaztea, zuzeneko musikarekin eta orkestrako musikarekin gozatzea izaten dira. Hau kontutan izanda, kontzertu bakoitzak bere proposamena izaten du eta helburu zehatz desberdinak. Kontzertu mota hauen planteamendua musikako erreperorioari, gaiari, programazioari eta musika hezkuntzako kurikulumaren edukiei dagokionez, hezkuntza arlokoak izaten dira. Horregatik ezinbestekoa da publikoaren parte hartzea prestatzea, horretarako ikasleek aurretik prestatuz jarduera ezberdinen bidez.

Beraz, kontzertu didaktikoa, orain dela zenbait urtetako baliabide berritzaile bat da, honen bidez, jarduera desberdinak proposatzen dira publikoaren eta musika lanaren arteko zubi bat lortzen saiatzen da. Era berea parte-hartzeari garrantzi handia ematen dion baliabide bat da, baita entzuketari eta errekonozimenduari ere. Obra famatuena eta batzuetan ez hain famatuena antzezpenaren bidez, publikoaren mailarenganako egokitzapena eginez entzuketara ulerkorra eskaintzen zaie gazteei. Honetaz aparte, kurikulumean proposatzen diren alderdi desberdinen lanketarako balio dute eduki, metodologia, helburu eta ebaluazio irizpide desberdinekin. Ikasleen interesak kontutan hartzen dira hurbileko gaietan oinarrituz.

Musika, mundu guztia erabiltzen duen espresio eta komunikatzeko hizkuntza bat da. Lanaren hasieran esan dugun moduan, kultura bakoitzaren adierazle nagusietako bat da eta familia bateko, herrialde bateko edo talde bateko parte-hartzaile bat bezala adierazten duen atal bat da.

Soinuak, erritmoak eta musikaren zati guztiak orokorrean, emozioak, sentimenduak, esperientziak e.a. Gogorarazten dizkigute. Hezkuntza musikalaren helburuetako batzuk, soinuen pertzepzioa, hautatze-gaitasuna, ahozko eta instrumentuzko adierazpena eta talde lanetan sormen adierazpena lortzea izango dira. Horretarako irakasleek hurrekin baliabide aunitz erabili beharko dituzte ahalik eta hezkuntza kalitatezkoena lortzeko.

Honetaz aparte, esan dugun moduan kulturantzatasuna ere dantzen bidez landuko dugu kontzertu didaktiko honetan. Dantzak ere kultura guztietan aurkitzen dugun baliabide bat dira, orokorrean ematen diren mugimenduak ikusgarriak izaten direlako ikasleentzat oso erakargarriak izaten dira. Dantza

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

orokorrean espresio mugimendu bat bezala hartzen da hezkuntza munduan, baina kontutan izan behar dugu, ikasleek hezkuntza osatu bat jasotzeko oso garrantzitsua den baliabide bat dela. Dantzari esker, norbanakoaren mugimenduak eta haien mugak ezagutzen laguntzen du. Honetaz aparte, erlazio sozioafektiboak ere piztu egiten ditu bakoitza bereganako konfiantza lortuz. Proposamen honetan planteatzen ditugun dantzak eta haiekin erlazionatutako kulturak hauek dira.

Tangoa: Argentina. Argentina, herrialde multikultural bat da, geografiaren aniztasunarengatik eta beste zonaldeetatik joan zen jendearengatik, batez ere Europarrak, horregatik kultura desberdinen nahaste bat dela esan dezakegu honek lurraldeari aberastasun handia ematen diolarik. Jarduera kulturaletan ere aniztasun handia dago, mundu artistikoan, antzezlanetan, margolaritzan, eskulturan, musikan eta literaturan garrantzi internazionala jasoz. Musika popularra indar handia du gizartean eta eskola profesionalak daude tango, folklore eta rock antzezten diren besteak beste. Bertako dantza ofiziala tangoa da. Tangoaren ezaugarri nagusiak besarkada, inprobisazioa eta ibiltzeko modu motela dira. Bikotearen mugimenduak ulertu behar dira eta hauetara egokitu.

Salsa: Puerto Rico. Zonalde honetako kultura ere toki desberdineko eraginak ditu, batez ere mesoamerikar kultura eta kultura andinoa. Hainbat kultura mota egon ziren historian zehar zonalde honetan kokaturik, eta artean, musikan, janarian...islatzen da kultura espainiarra, afrikarra eta bertakoen nahaste bat dela. Dantzari dagokionez, dantza mota asko aurkitzen dira zonalde honetan baina proiektu honetan salsa landuko da. Dantza honetan erabiltzen den erritmoa son kubanoa da 4/4 konpasean eta nagusitzen diren instrumentuak perkusiozkoak dira, tinbalak, bongoak, marakak...

Merengea: Dominikar Errepublika. Kultura honen sustraiak espainiarrak eta afrikarrak dira. Merengea da bertan sortu zen dantza tradizionala. XIX. Mendearen amaieran sortu zen. Hasieran kitarrekin jotzen zen, baina denbora pasa ahala, akordeoia, guira eta *tambora* erabiltzen hasi ziren. Hiru instrumentu hauek, hiru kulturen adierazle dira. Akordeoia (espainiar kultura), guira (bertakoen kultura) eta *tambora* (afrikar kultura).

Chachacha: Cuba. Zonalde honetako kultura, latindar Ameriketako kultura gehienak bezala, nahaste bat da Ipar Ameriketako, Europako eta Afrikako kulturen artean. Hainbat aldaketa jasan ditu honek iraultzaren ondoren.

Chachacha, bertan sortutako erritmoa da. Latindar dantza da eta indar handia hartu du batez ere gela barruko dantzetan. ez da oso erritmo azkarra ezta oso motela, horregatik errazagoa da dantzatzeko momentuan. Lau denborako konpasean ematen da. Bikotea besarkatuta egoten da eta gerriarekin mugimenduak egiten dira oinen mugimenduekin batera.

Kontzertu didaktikoen alorrera bueltatuz, haur eta gazteentzat bereziki programatutako kontzertuak dira. Kontzertu didaktikoak, hezkuntza arloaren baliabide garrantzitsu bat dira. Honek, hurrei musikaren mundura sartzeko erraztasuna handia eskaintzen die, bai honen barruan aurkitzen den antzezpena eta produkzioa. Haurrak, gazteak eta familia osoak, zuzeneko musikaren munduan sartzen dituzte, kontzertuak, operak, dantzak... egoera bakoitzera egokitutako prozesu didaktikoak erabiliz.

Kontzertu didaktikoak baliabide erabilgarria dira gazteek orokorrean entzuten ez duten musika mota desberdinen ganako hurbiltasuna lortzeko. batez ere kontzertua bizitzen badute. Hala ere, argi izan behar dugu, kalean edo antzerki batean zuzenean ematen den edozein kontzertu ez dela kontzertu didaktiko bat. Ezaugarri berezi batzuk jarraitu behar ditu kontzertu batek didaktikoa izateko. Helburu didaktiko zehatzak behar ditu, metodologia baten erabilpena, ebaluatzeko irizpide batzuk jarraitu, ikasleen aurre-jakintzak kontutan izango ditu eta hauen arabera kontzertuaren aurreko eta ondorengo ariketak prestatuko dira. Azkenik aurkezle bat egongo da aurreko atalak bideratu eta kontrolatuko dituena.

La preparación y organización de un concierto didáctico conllevan el conocimiento de las características del público, el espacio físico, las obras del programa, los intérpretes, el programa de mano y las actividades preparatorias realizadas por los asistentes (Neuman, 2004, 17. orr).

Eskolako ikasleentzat prestatutako kontzertu didaktikoek, gizartearen bizipen kulturala indartzen du eta hauen prestakuntza eta ebaluazioa, musikariak, instituzio desberdinak eta pedagogia arloko profesionalen arteko harremanak

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

hobetzen ditu. Horregatik, garrantzitsua da ulertzea, kontzertu didaktikoak ikaskuntzaren kurrikulumean oinarritutako aktibitateak direla eta prozesu luze eta garrantzitsu batetik pasa behar dutela bere amaierako emaitzak lortzeko. Hau guztia jarraituz, helburu desberdinak dituzten kontzertuak aurkitzen ditugu hauen helburuen arabera sailkatuak

- Sozialak: biztanleriaren egoera sozialen eta kulturalen inguruko gaiak lantzen dituztenak. Paco Medinaren *Sense Papers* atzerritarren arazo desberdinak azaleratzen ditu. *Concierto Intercultural* kultura desberdinetan aurkitzen diren jantzi, kanta eta dantzak aurkezten ditu.
- Hezigarriak: heziketa musikalean zentratzen dira bakarrik, beste arloetan sartu gabe. *Al son de la música* familia desberdineko instrumentuak erakusten dizkie ikasleei.
- Ludikoak: entzuketa ulerkor batera gidatzen dute publikoa, gainera, parte hartze aktiboa bermatzen dute motibazioa bermatuz. *Concierto interactivo* oso adibide interesgarria da. Antzezleek obra desberdinak jotzen dituzte publikoak aukeratzen duen arabera.. Honi esker, inoiz ez dago kontzertu berdinek.
- Literarioak: istorio bat kontatzen da ipuin baten garapena jarraituz. *Mús Mágica* kontzertua eredu.
- Antzerkikoak: musikarekin batera, antzezpen bat ematen da, gidoi bat jarraituz. *Perkumanicomi* lanaren adibidea.
- Alegorikoak: obraren konpositorearen bizitzaren inguruan hitz egiten da obran. Horretarako bere antzezlan bat erabiltzen da. *Mozart* edo beste hainbat musikariren, Haydn edo Beethoven, bizitzan oinarritutako lanak.

Kontzertu didaktikoak, pedagogikoak diren heinean, edozein publikorako gomendagarriak dira, bai familientzat eta baita eskolako ikasleentzat, erabiltzen diren gaiak interes orokorrekoak direlako eta beti helburu hezitzaileak izaten dituztelako. Bigarren publiko honekin benetako proposamenaren bermatzea lortuko da kontzertu didaktikoek helburu eta prozesu jakin bat izaten baitute eta gehienetan zikloka banaturik aurkitzen ditugulako. Musikara produkzio eta interpretazio baldintza onenetan hurbiltzea errazten duen ekintza hezitzaile indartsu gisa aurkezten dira. Ume, gazte zein familiak, zuzeneko musikaren

esperientziarekin harremanetan jartzen ditu, egoera eta entzuleri bakoitzera egokitutako prozedura didaktikoak erabiliz. Gainera, kritiko eta parte-hartzaileagoa izango den publiko berri baten eraketari mesede egiten diote. Hauek dira lantzen diren alderdi orokor batzuk hezkuntzaren kurrikulumean proposatzen direnekin erlazioa dutenak, gero kontzertu didaktiko bakoitzak bere helburu zehatzak izango baititu:

- Gazte eta helduak zuzeneko musika entzutera animatu.
- Eguneroko bizitzan entzuten den musika komertziala ez diren musika motak entzuten gozaten lagundu.
- Entzumen ulerkorra, adierazpena, jakinduria musikala eta gauza berrienganako jarrera kritikoa garatu.
- Eduki musikal desberdinak ezagutu eta desberdindu, hala nola, instrumentuak, ahotsak...
- Zuzeneko ekitaldi batean, musikariengana erakutsi behar den errespetuzko jarrera ulertu eta ikasi.
- Soinuaren, irudiaren eta mugimenduaren aukerak ikertzea, eta ideiak eta sentimenduak adierazteko erabiltzea.
- Zenbait material eta tresna aztertu eta ezagutzea.
- Kulturako agerpen desberdinen behaketa eta azterketa egitea, horiek guztiak hobeki ulertu eta nork bere gustua eratzeko.
- Ikus-entzunezko baliabideen eta irudia eta soinua duten informazio eta komunikaziorako teknologien aukera batzuk ezagutzea.
- Nafarroako eta beste herrialde batzuetako kultur ondareko arte agerpenak ezagutu, baloratu eta errespetatzea. Kultura desberdinetakoak izan arren ingurune berean bizi diren pertsonak aintzat hartuz.
- Norberaren eta besteen sormen lanak errespetatzea.
- Arte esparruetako lanbide batzuk ezagutzea, eta artisten lanak ikusten dituztenean gozatzea.

4. MATERIAL ETA METODOAK

Marko teorikoan esan dugun moduan, kontzertu didaktikoek zenbait alor jarraitu behar dituzte planteatutako helburuak ahalik eta gehien lortzeko. (Ortega, 2009, 44-55 orr.)

- Kontutan izan behar da kontzertu didaktikoak *proiektu globalak* direla, horregatik, ez da hitz egin behar kontzertu didaktiko bat bezala, baizik eta proiektu hedatuago batean aurkitzen ditugun kontzertu didaktiko desberdinez baizik. Gainera, kontzertu didaktikoak unitate edo proposamen didaktiko handiago baten atal bat izaten dira orokorrean, beraz, prestakuntza, material eta baliabide desberdinen erabilpena kontutan izan behar da.
- *Gaiari* dagokionez, adinari egokitutako gai bat aukeratu behar da, horrela ikasleek errazago jarraituko dute kontzertuaren istorioa eta hobeto barneratuko dituzte proposatutako edukiak. Amaierako helburuak bermatuz.
- *Publikoarekiko hartu emana* ere atal oso garrantzitsua da, horregatik publikoaren adina zein den pentsatu behar da. Kontutan izan behar da, adinaren arabera, hurrek musika kognitiboki eta emozionalki jasotzen dutela. Horregatik, ikasleen adinaren inguruan ikerketa bat egitea haien lehentasunak zeintzuk diren aztertuz oso erabilgarria litzateke. Honen bidez, kontzertuaren errepertorioa haien lehentasunetan oinarritu daiteke. Hau lortzeko, aldeztu aurretik prestatu behar da erabiliko diren material eta ariketa guztiak.
- Musikaren *kalitatea* ere oso garrantzitsua da, egia da egokitzapen batzuk egin ahal direla haurrentzat erakargarriagoa egiteko, baina fideltasun musikala mantentzea beharrezkoa da. Kalitate hau antzezpenaren, ikuskizunaren, publikoarekiko hartu-emanaren... atalean ere garrantzia eman behar zaio.
- *Ebaluazioa* kontzertu didaktiko baten funtsezko atal bat da. Ebaluaziorik gabe ezin da jakin gure helburu didaktikoetatik zenbat bete diren eta zenbat geratu diren atzean, eta hurrengo kontzertu baterako

egokitzapenak egiteko erabili. Hau lortzeko baliabide egoki eta errealistak erabili behar dira.

- Badaude musikari asko eroso ez direla sentitzen publiko baten aurrean hitz egiten, eta zer esanik ez, publiko hori haur txikiak badira. Horregatik, eskolako langileen eta musikarien artean hitz egin behar dute hasiera-hasieratik eta kontzertuan zehar emango diren publikoaren eta musikarien arteko *elkarrekintzak adostu*. Gainera, kontzertuaren helburuak zeintzuk diren ere adostea ezinbestekoa da. Kontzertua aurrera eramaten duten pertsona guztiek helburu berdinak badituzte, amaierako emaitzak hobetu egingo baitira.
- Kontzertu didaktiko bat aurrera eramateko, ezinbestekoa da *gidoi* baten planifikazioa egitea eta musikari eta hezkuntzako profesionalen arteko talde-lan bat egitea.
- Ezinbestekoa da kontzertura joango den publikoaren ezaugarriak ezagutzea. Haien *adina* ezagutzea, musikarekin izan dituzten esperientziak, aurre-jakintzak eta kontzertura joan baino lehen zein motatako prestakuntza jasoko duten. Batez ere, ohituak daudelako musika komertziala entzutera eta hauek iraupen gutxikoak eta oroitzeko errazak izaten direlako. Horregatik abesti sinple, motz eta ezagunak erabiltzea gomendagarria izango litzateke.
- Kontzertura joango diren ikasleak *jardueran parte hartuko* duten zehaztu beharko da eta haien irakasleekin elkartu hobe izaten da kontzertuaren erdian parte-hartzerik ez egotea ikasleek arreta ez galtzeko baina ongi txertatuta badago ez da arazorik izango. Honi esker, kontzertu didaktikoaren helburuak zeintzuk diren adostu ahal dituzte guztien artean ahalik eta etekin gehiago lortzeko.
- Erabiliko den *errepertorioari* dagokionez, arreta handia jarri behar da, orokorrean gazteek ez dutelako musika mota hau inoiz edo gutxitan entzun. Horregatik gomendagarria da obra luze eta konplexu batean soilik ez zentratzea. Dantza eta kanta tartekatzea ere garrantzitsua da, horrela estimulu desberdinak jasoko dituzte ikasleak.

- Kontzertua egingo den *tokia*, aretoaren tamaina eta antolakuntza ezagutzea ere oso garrantzitsua da. Zirkulu erdi bat bada, musikarienganako distantzia antzekoan edo berdinean egongo dira eseriak haurrak, haien atentzioa bermatuz. Aldiz, laukizuzen itxurako eserlekuetan esertzen badira, aurreko ilarakoak ongi egongo dira kokaturik, baina atzeko ilarakoek, oso urrun geratuko dira eta haien entzumena eta ikusmena zailduko da, atentzioa ere zailduz.
- Kontzertuaren *iraupena* ere kontrolatu behar da, Lehen Hezkuntzako ikasleek, 45 minutuko edo ordu bateko irupeneko ekitaldietan soilik egoten dira erne, denbora hau pasata, beste gauzetan pentsatzen hasten dira.
- *Aurkezleari* dagokionez, nahiz eta garrantzi gabeko zerbait dirudi, hau da kontzertu didaktikoen atalik garrantzitsuenetarikoa. Aurkezleari esker, gehienetan, lortzen dira hasieran planteatutako helburu guztiak. Ikasleak, eta publiko guztia orokorrean, musikarienganako hurbiltasuna lortzea izan behar da bere helburua. Honi esker, publikoko ikasleek prestakuntza txiki bat izango dute entzuketa egiteko.

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Orain arte landutako ideia guztiak aurrera eramango ditugu. Esan dugun bezala, kontzertu didaktiko honen funtsa kulturantzaren trataera izango da, horretarako munduko dantza desberdinak landuz. Mota honetako ekintza bat prestatu aurretik, irakasleak bere buruari galdetu behar dio zein oinarrizko gaitasun landuko diren, zeintzuk izango dira helburu zehatzak eta hauek lortzeko jarraituko duen metodologia. Kontzertuaren inguruan landuko diren edukiak zeintzuk diren prestatzea ere komenezkoa da. Azkenik ekintza guztiaren jarraipenaren ondoren, zein izango diren ebaluatzeko irizpideak ere kontutan izan behar dira.

Amaierako helburuak lortu arte kontzertu didaktikoa ez da soilik egun batean egiten den zerbait, baizik eta prozesu landu bat jarraitzen duen proposamena. Prozesu honetan zehar, musikaren erakargarritasuna da nagusi. Ez dugu haurren atenzioa ahaztu behar. Horregatik prozesu honetan zehar, beharrezkoak izango dira, aipatutako alor eta ezaugarriak jarraitzea.

Kontzertu didaktiko honetan hezkuntza artistikoa landuko denez, arlo honetako edukiak izango dira kontutan helburuak aurrerago planteatzeko, zehazki hirugarren zikloko edukiak landuko dira:

5.1. Kontzertuaren helburu orokorrak

- Lan artistiko bat baloratzea kultura desberdineko ezaugarriak transmititzeko baliabide bezala.
- Kultura eta estilo desberdineko musikak entzutea eta baloratzea, bai gaur egunekoak eta baita antzinakoak ere.
- Errepikapen berdineko lan musikalen identifikazioa.
- Kultura desberdineko instrumentuak ezagutzea eta haiekin esperimentatzea.
- Kultura desberdineko arlo artistikoaren inguruan (musika, konpositoreak...) informazioa bilatu.
- Zuzeneko antzezpenenganako balorazioa eta errespetua.

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

- Ingurukoak ez diren kulturak ezagutzea eta haien desberdintasunak errespetatzea.
- Bizikidetasuna eta elkarrenganako errespetuan oinarria duten balio eta praktika demokratikoen bidez gatazkak konpontzea.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko giro positibo eta elkarlanekoa lortzea.
- Taldeko jardueretan lan egiten ikastea eta besteen iritzi eta kritikak onartzea eta errespetatzea.
- Segurtasun pertsonala garatzea besteen sorkuntza eta antzezpen artistikoak ikusiz, balorazio kritikoak eginez eta hauek errespetatuz.
- Arlo artistikoaren barruko lanbide eta eginkizun desberdinak ezagutu, publiko moduan antzezle profesionalen lanak ikusiz.
- Musika entzumenaz gozatzea, entzute aktiboa erabiliz

5.2. Oinarrizko gaitasunak

- *Ahozko komunikazioa* (1). Gaitasun honen lanketa aurkezleak kontzertua baino aurreko, bitarteko eta ondorengo ariketak planteatzen dituen emango da. Baita irakaslearekin kontzertuaren prestakuntzarako egingo diren klaseko ariketen bidez ere.
- *Mundu fisikoarengan ezagutza eta elkarrekintza* (3). Dantza eta musika desberdinak aurkezterakoan landuko da batez ere gaitasun hau, baina baita kontzertuan zehar aurkeztuko diren ideien lanketarekin eta hauen inguruak egingo diren ariketa desberdinekin ere.
- *Gaitasun soziala* (5). Gaitasun hau, ikasleek besteenganako elkarrekintzak egiten dituztenean garatuko da. Kontzertuaren inguruko ariketak landuz.
- *Gaitasun artistikoa eta kulturala* (6). Antzezpenak ikusterakoan garatuko dute, baita klasean kultura desberdinen inguruko ariketak prestatzean.
- *Garapen eta autonomia pertsonala* (8). Kontzertuan zehar jasotako informazio guztia, planteatutako ariketak egitean.

Hau horrela izanda, kontzertu didaktikoan kontutan izango den gaitasun nagusia *mundu fisikoarengan ezagutza eta elkarrekintza* (3) da. Honek ez du esan nahi besteak landuko ez direnik, baizik eta dantza eta musikaren bidez beste kultura batzuk aurkezteko kontzertu bat izanda, gaitasun hau landuko da gehien. Gaitasun soziala ere bada talde honetan sartu dezakegun oinarrizko gaitasuna.

Ahozko komunikazioa denbora osoan landuko den gaitasuna izango da, irakaslearekin eta beste klasekideekin kontzertua prestatzeko egingo dituzten ariketekin, bai ikasleek musikarenganako iritziak adieraztean edota aurkezleak galdetzen dizkion galderak erantzuten... Aldi berean, ikasten ikasteko gaitasuna eta autonomia eta garapen pertsonala ere landuko dira.

5.3. Kontzertuaren helburu zehatzak

Lehen aipatu den moduan, kontzertu didaktiko bakoitzak bere helburu didaktiko zehatzak izango ditu. Kasu honetan hauek izango dira proposatzen direnak:

- Aldez aurretik landutako melodia eta erritmo sinple desberdinak ezagutzea, prestakuntzan landutako adibideak, kontzertuan zehar entzungo dituztenekin erlazionatuz.
- Talde lana egiten ikastea, besteen iritziak kontutan hartuz eta errespetatuz. Aurkezleak kontzertuaren ondorengo ariketak egitean eta klasean adostutako arauak eztabaidatzean.
- Dantza, mugimendua eta antzezpena, adierazpen moduan erabili daitekeela ulertzea koreografia desberdinak ikusiz.
- Kultura desberdinak ezagutu eta errespetatu eskaintzen dituzten dantza eta musika desberdinak aztertzen. Kontzertuan zehar ezagutuko dituzten kulturak barneratuz eta klasean landutakoarekin erlazionatuz.
- Autonomia eta heldutasuna garatzea galdera desberdinei erantzunak emanez.
- Dantzatzeko beharrezkoak diren oinarrizko mugimenduak (aurrerapausoak, bueltak, eskuen mugimenduak...) ezagutzea. Ikusiko dituzten dantzak aztertuz eta hauetako zenbait idea hartuz.

Multikulturaltasuna musika eta dantzekin lantzeko kontzertu didaktikoaren proposamena.

- Zuzeneko ekitaldi batean egoki jokatzeko jarraitu behar den portaera ulertu, barneratu eta aplikatu. Klasean adostutako arauak betez
- Musikarien eta dantzarien lanarenganako errespetuzko jokaera barneratu. Kontzertu didaktikoa prestatzeko beharrezkoa den lan gogorra baloratuz.

5.4. Kontzertu didaktikoa

Orain hasiko da kontzertu didaktikoaren istorioaren kontaketa, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat bereziki prestatutako abentura bat izango da:

Neska eta mutil bat izango dira protagonistak. Neskak Ane du izena eta mutilak losu. 2040. urtean bizi dira eta 12 urte dituzte. Lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleak ziren eta orain DBHra pasatuko dira. Udako oporretan daude zer egin jakin gabe. Orduan, losuren aitona agertzen da eta zerbait interesgarria erakutsiko diela aipatzen die. Haien etxeko sotora jaisten dira eta makina zahar bat erakusten die hautsez beteta dagoena. Gazteagoa zenean asmatu zuen denbora makina dela aipatzen die. Hasieran losuk eta Anek ez dute sinesten baina makinaren barruan sartzen dira eta bi erloju handi aurkitzen dituzte bertan. Lehenengo erlojuan urteak agertzen dira eta bestean munduko herrialde guztien izenak. Orduan aitona adibide gisa lehenengo erlojuan 1980 urtea jartzen du eta bigarrenean Argentina. Bat-batean dena dardarka hasten da eta gazteak bueltaka hasten dira. Zorabiatu eta lurrera erortzen dira. Begiak ireki eta lurretik altxatzean makinatik atera eta etxeko sotoan ez daudela konturatzen dira. Herrialde ezezagun batean agertu dira. Orduan tangoko kanta bat entzuten hasten da eta tango dantzari batzuk agertu eta dantzan hasten dira. losu eta Ane izutzen dira eta publikoarengana joaten dira orain dauden tokia eta dantza zein diren galdetuz. Dantza amaitzean, dantzari bat hurbilduko zaie eta Argentinaren inguruko informazioa eskainiko die. Azalpena amaitzean, haien aitona desagertu dela konturatzen dira eta bidaian galdu egin dela pentsatzen dute. Beraz, denbora makinarekin bilaketa bat egitea erabakitzen dute. Berrito ere urtea eta zonaldea aldatzen dute Dominikar Errepublikan agertuz, Argentinan bizitako egoera antzeko bat suertatzen zaie baina merengearekin. Ondoren losuk eta Anek beraien aitonairengatik galdetuko dute

eta ez dutenez aurkituko, beste toki eta urte batera joango dira. Oraingoan, Cuban agertzen dira chachacha erritmoaren baitan. Egoera berdinen aurrean, azkenengo herrialde batetara joatea erabakitzen dute, Puerto Ricora, salsa doinuez gozatzera. Bertan ez dute aitona aurkitzen eta nekatuak daudenez eta berandu denez, etxera itzultzea erabakitzen dute. Etxeko egongelara igotzean, aitona sofan aurkitzen dute lasai-lasai telebista ikusten. Beraz arduraturik zeudela esaten diote eta bera lasai-lasai esaten die uda amaitzean DBH ikastetxe batera joan behar direla eta bertan kultura desberdineko ikasleak aurkitu ahal dituztela, horregatik munduan dauden kultura batzuk erakutsi nahi izan diela, denbora makinaren bidez, hauek ezagutzeko eta errespetatzen ikasteko.

Kontzertu didaktiko hau aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak hauek izango dira.

- *Janzkera*: dantza bakoitza dantzatzeko zonalde bakoitzean erabiltzen diren arropa tipikoak.
- *Musika tresnak*: dantza bakoitzeko abestia jotzeko erabili beharreko instrumentuak, kitarra, marakak, bongoak...(baloratu beharko da zuzeneko musika eskainiko den edo grabaketa ezberdinak erabiliko diren).
- *Denbora makina* bat: (kartoizko kutxa handi batekin egin daiteke) eta sofa bat edo aulki bat.
- *Dekorazioa*: herrialde bakoitzean aurkitu ahal diren zuhaitz, etxe edota toki tipikoak. Kartoiarekin ere egin daitezke.
- *Narratzailea*: kontzertuan bi narratzaile egongo dira. Hasierako eta ondorengoko ariketak aitona egingo ditu, baina istorioan zehar ematen diren elkarrekintzekin bi protagonistak izango dira narratzaileak.
- *Aurkezlearen papera*, hainbat alditan esan dugun moduan, oso atal garrantzitsua da. Kontzertu honetan zehar aurkezle bat izango da aurreko eta ondorengo ariketak planteatuko dituena, baina istorioa aurrea joan ahala emango diren elkarrekintzetan, bi protagonistak izango

dira publikoarekin harremanetan jarriko direnak, beraz, aurkezlearen papera hartuko dute hemen.

- Kontzertu didaktikoaren *gidoiari* dagokionez, hau izango da jarraituko den antolakuntza. Kontzertua hasi baino lehen aurkezlea aurreko ariketak planteatuko dizkie ikasleei. Hauek amaitzean, istorioa hasiko da. Protagonistak lehenengo zonaldera iristean lehenengo antzezpena emango da, kasu honetan Tangoko abesti hau entzungo da (<http://www.youtube.com/watch?v=bXhQNRsH3uc>.) Honen ondoren, bi protagonistak publikoarekin elkarrekintza izango dute. Hurrengo herrialdera iristean Merengeko abesti hau joko dute musikariek (<http://www.youtube.com/watch?v=hcEv8EUmmcM>.) Honen ondoren, bigarren elkarrekintza egingo da. Gero, Chachacha abestia joko dute hurrengo tokira iristean (<http://www.youtube.com/watch?v=USKDu5ufFjE>.) Hau amaitzean publikoaren parte hartzea emango da eta azkeneko tokira iritsiko dira, bertan Salsako abesti hau entzungo da (<http://www.youtube.com/watch?v=9ApPgZ5vE1A>.) Publikoaren azkeneko parte hartze honen ondoren, istorioa amaituko da eta berriro ere aterako da aurkezlea kontzertuaren ondorengo ariketak aurrera eramateko.

Hemendik aurrera, kontzertu didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoak diren ariketen proposamena egingo dugu. Kontzertua baino lehen irakasleek ikasleekin klasean prestatu ahal dituztenak, kontzertua baino aurretiko ariketak eta ondorengokoak.

5.4.1. Kontzertu aurretiko jarduerak

Lehenik eta behin, prozesu bat den moduan, kontzertua baino aurreko ariketak prestatu beharko dira landu nahi diren helburuekiko lehenengo harremanak izateko. Kontzertuen aurretik, eskolan bertan, hurrengo prestakuntza jarduerak egin ahal dira haurrekin.

1.Ariketa: Klasean ikasleei zer den kulturantzitasuna galdetu. Haien iritziak botako dituzte ozenki eta irakaslea arbelan idatzi ahal ditu iritzi hauek. Ondoren, aurretik bilatutako argazki batzuk erakutsiko zaizkie ikasleei munduan dauden kultura desberdin batzuk ezagutzeko. (Ikusi 1.eranskina). Argazki hauen inguruan galdera desberdin batzuk planteatuko dira, zein kultura den dakizu?

Zerbait dakizu honen inguruan? Galderak taldeka erantzun ondoren, kulturantzaren garrantziaz mintzatuko gara talde handian eta kulturartekotasunari errespetua erakusteko garrantzia barneratzen saiatuko gara.

2.Ariketa: kulturantzaren inguruan jarraitu baina oraingo honetan kontzertu didaktikoan landuko diren lau dantzetan arreta jarriko da. Horretarako, dantzen inguruan informazio pixka bat eskainiko zaie ikasleei. Non sortu ziren, noiz, erabiltzen diren instrumentuak... eta hurrengo bideoak ikusiko dituzte klasean. (Ikusi 2.eranskina). Bideo hauek ikusi ondoren, dantzen inguruan dituzten iritzi pertsonalak galdetuko dizkiegu ikasleei.

3.Ariketa: hurrengo ariketaren bidez ikasleek kontzertu egunean bete beharko dituzten zenbait arau adostuko dituzte. Irakasleak lehenengo araua esango die: musikariek jotzen duten bitartean isilik egongo naiz. Ondoren, ikasleen artean adostu beharko dituzte emanaldian bete beharreko jarrera arauak eta kontzertua amaitzean eta klasera bueltatzean, betetako eta ez betetako arauen balorazio bat egingo dute.

5.4.2. Kontzertuaren eguna

Kontzertuaren egunean, musikaren eta dantzen gozamina izango da garrantzitsuena, horregatik hobe da aurkezleak hasieran parte hartze gutxi izatea.

Kontzertua hasi aurretik hasiera modura hurrengo jardura egitea proposatzen da.

1. Ariketa: haurren jakinmina pizteko helburuarekin, aurkezlea kontzertu didaktikoaren proposamina egingo du. Kontzertuan zehar ikusiko dituzten dantzak zeintzuk izango diren eta, batez ere, istorioaren bi protagonisten inguruan sarrera txiki bat eskainiko die. Istorioaren inguruko laburpen txiki bat eginda, ikasleek pertsonaienganako hurbiltasuna eskuratuko dute eta haien inguruko norbait bezala erlazionatzen hasiko dituzte. Hau izan daiteke aurkezleak aipatuko dien laburpen txiki bat. (Ikusi 3.eranskina)

5.4.3. Kontzertu ondorengo jarduerak

Kontzertua amaitzean, kontzertuan zehar eta aurreko prestakuntzarekin jaso duten informazio guztia barneratzeko asmoarekin, zenbait ariketa proposatu ahal zaie ikasleei. Ariketa hauek erakargarriak eta sinpleak izan behar dira ez aspertzeko.

1. Ariketa: ariketa honetan galdetegi bat pasatuko diegu, beraz, 5-6 pertsonako taldetan jarriko dira ikasleak eta gai honen inguruan kontzertuari esker ikasi duten guztiarekin inkesta edo galdetegi laburra beteko dute. Horrela, galdera hauei erantzuna emanaz, kontzertuan barneratu duten guztia aztertuko da eta lehen esan den moduan, barneratu dena eta ez dena ikusiz, etorkizunean moldaketak egiteko

Galdetegia:

-Nongoa da Tango dantza?

-Non dantzatzen da Salsa?

-Zein instrumentu erabiltzen dira orokorrean dantza bakoitzean?

-Zeintzuk dira musika mota honetako abesle famatuak?

-Zein da Chachacha dantzaren historia?

-Zein da Merenguearen historia?

2. Ariketa: Asmakizun batzuk planteatuko dizkiegu ikasleei eta haiek zein dantza den edo zein instrumentu den asmatu behar dute kontzertuan zehar jaso duten informazioarekin. (Ikusi 4.eranskina)

3. Ariketa: proposamen honetan, ikasleak lauko taldetan banatuko dira eta taldearen barruan bikoteak egingo dira. Orduan, bikote bakoitzari paper bat eta arkatz bat emango zaio eta 5-10 minutuko denbora izango dute orain ikasi duten inguruko hainbat galdera prestatzeko. 5-6 galdera-erantzun bikote bakoitzak. Galderak prestatu ondoren, bikote bakoitza besteari planteatuko dizkio eta haiek erantzungo dituzte. Talde bakoitzeko galdera gehien erantzuten dituen bikotea izango da irabazlea.

4. Ariketa: kontzertu guztia ikusi ondoren, kritikoak izan beharko dira ikasleak ikusitakoarekin. Modu honetan haien iritzi pertsonala lortuko da eta aurreko

jarduerarekin bezala, aurrerago egingo diren moldaketak bideratuko dira. Proposamen hau aurrera eramateko momentuan ozenki guztion artean egin daiteke edo 5-6 pertsonatako taldetan hurrengo jarraibidea pasatu eta haien artean adostu erantzuna. Bigarren aukera hau da kasu honetan egokiena dena idatzita izanda, gero erabilgarriagoa izango delako, gainera, modu honetan ikasle guztien iritzia jasoko dugu eta ez hitz egitera ausartzen direnena soilik. Hau izango da jarraibidea (ikus 5.eranskina).

Hauek dira kontzertu honetarako proposatzen diren ariketa guztiak. Kontzertuaren helburu didaktikoak kontutan izanik planteatu dira. Saiatu gara ariketa nahiko prestatzen, proposamen bat izanda, aurrera eramaten denean ahalik eta baliabide gehien izateko eta modu honetan erraztasunak aurkitzeko.

